

TTAKUN (H)ERRENKA

Zaharkitze programatua

L

a 2ek, Arte kanal frantziarrak, Televisión Española eta Televisió de Catalunya ekoiztu duten *Comprar, tirar, comprar* dokumentala ikusi genuenean, orduan hasi ginen *Zaharkitzapen programatua* kontzeptua ahotik ateratzen. Kontsumorako produktu berriak sortzerako orduan (bateriak, bonbillak, inprimagailuak, eta abar), ekoizleek azkar zaharkitzen eta apurtzen diren produktuak diseinatzen dituztela jakin ahal izan genuen, hau da, haien bizitza erabilgarriari “death date” edo “hiltzeko eguna” nahita ezartzen zaio. Horrela sentitu naiz ni ETAk “jarduera armatua behin betiko amaitzea erabaki” duela jakinarazteko jendarteratu duen adierazpenaren ondotik. Alegia, zaharkitzapen programatuak azkar eta nahita apurtutako produktu bat bezala. “Gauzak ondo esplikatzen jakingo banu ez nuke kantatuko”, Mikel Laboa handiaren antzera esango nuke orain oso gustura. Baina “momentu historikoa” bizitzea tokatu zaigu (ez ditut momentu historikoak maite, garbi adierazteko, putakeria galanta iruditzen zaizkit momentu historikoak), eta ARGIA bezalako garrantzi handiko astekari batean kolaboratzaile lanetan aritzeko zorte aluarekin gainera. Ondorioa da zerbait esan behar dudala, hori da ttakunkideek ez ezik, irakurleek ere nigandik espero dutena, eta ezin dut burua ezkutatu. Ea ongi esplikatzen naizen. Poz oso handiaz poztu nintzen berria entzun nuenean, jakina! Baina behin odola garbituta, zauriaren ubelak besterik ez dira geratzen. ETAREN iragarpenaren aurrean, Euskadi Irratiari, ETBri urgentziaz egindako adierazpenak jarraitu nituen, erreakzio guztiak ia komunikabide guztietan, arretaz eman nuen urriaren 20ko arratsalde-gaua. Ohartu nintzen elkarrizketatutako guztiek sentitu

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

zutela denengan berdina izan zen zerbait esateko premia: euren adina. Nik 39 urte ditut. Orain 52 urte dauzkat. Nik 41 urte ditut, 14 urteko seme bat eta 4ko alaba bat. Nik 57 urte ditut. 67 urte ditut. 77 urte ditut. Denbora osoa. Bizitza osoa gatazka politikoaren etxean eman dugu. Eta arazoa da

gu ere behar baino lehenago zahartu egin garela. ETAREN adierazpena ospatu eta berehala zahartu naiz ni. Puntu jakin batera iristean puskatu, matxuratu edo funtzionatzeari utzi dion etxetresna bezala. “Ez nuke ETAREN amaiera ikusi gabe hil nahi!” ezinezko ametsa bezala amesten zuten milaka pertsona hil dira amaiera ikusi ezinda. Ni ere ikusiko ez nuela sinetsita nengoan. Baina behin betiko bakea ikusiko dut, bake betikoa baino lehen. Hala ere, iragan-oraina-geroaren ispi-luaren aurrean jarrita, “fenomeno sozio-politiko-kulturalak” nigan utzitako ondorioak ezabagaitzak direla ere ikusi dut: herri-inkontinentzia, herri-desnutrizioa, herri-ikusmen eta herri-entzumeneko arazoak, herri-depresio bilakatzen den herri-isolamendua, eta abar. Hau da, niri ere intentsitate handiko zaharkitze-prozesua aplikatu zaidala ikusi dut. Eta ezin harrotu zahartzaro horretaraino iritsi izanaz. Zer edo zer berri behar denean gailu osoa zaborretara bota behar ez izateko, edo behintzat piezak birziklatzeko forma iraunkorrak erraztu beharko diren

modu berean, bizitza luzea gatazkak eragindako era guztietako kalteak nozituz egin dugunok ere sendabidea bilatu beharko dugu, eta aro berrira egokitzeko ospitalera joan, medikuak gizarteratzeko moduan gaudela ebatzi arte. Bestela, gurea bezalako herrialdeak politikaren hondakinentzako zaborte-gi kontrolatu bihurtuko dira. ■



Bizitza osoa gatazka politikoaren etxean eman dugu. Eta arazoa da gu ere behar baino lehenago zahartu egin garela.

ETAREN adierazpena ospatu eta berehala zahartu naiz ni